

# KM 0

Programa honek bi erreferente ditu. Lehenengo erreferentea, elikadurarena, elikagaiekiko, inguruarekiko, kulturarekiko eta biodibertsitatearekiko lotura estuagoa proposatzen digu. Hurreko osagaien kontsumoa bultzatzen da. Bigarren erreferentea, neurriena, Erromako Foroan dagoen Milliarium Aureum ("Urrezko Zuina") delakoa dugu kokalekurik ezagunena. Bide guztien abiapuntutzat hartutako monumentu hau Inperio Erromatarreko distantzia guztiak neurtzeko erreferentzia zen, "bide guztietatik joaten da Erromara" dioen antzinako esaldiak erreferentzia egiten dio Milliarium Aureumi, hura izaki bide guztien helmuga.

Hori dela eta, Amorebieta-Etxanoko bibliotekak neurria hartu nahi dio bertakoari. Ezagutzaren esparru desberdinetan zeresana duten Amorebieta-Etxanoko lagunei aukera emango zaie bere alorreko hitzaldia emateko eta herritarrak horren berri izateko.

Horretarako Bibliotekak zenbait hitzaldi antolatu ditu. Programa luzea da, azaroan hasi eta apirilamaitu, hilean behin. Era honetan jkaintzren arteko nahasketa sor dadin.

Programaren hasiera **Zornotzako Emakumeak. Cum laude** hitzaldiak emango lioke, non Zornotzako tesidun emakumeek hitz egingo lukete bere arloari buruz.